

EUTSI EDO HIL

Herri Indigenak enpresen neokolonialismoaren aurrean



MUGARIK GABE

Etza Garapen Jasangarria eta bidezkoa lortzeko
lankidetzarako gobernuaz kanpoko erakundea

Herri-Onurako Elkartea

Garapenerako Lankidetzaz erakunde bezala, **MUGARIK GABE**ren zeregina pertsonen garapen integralerako eskubidea sustatzea da, baina ez soilik garapen ekonomikoaren ikuspuntutik, baizik eta pertsonarenetik, gizonemakumeak garapen horren abiapuntu izanda; gizon eta emakumeen, eta herri desberdinen arteko berdintasuna sustatuko duen garapena, etorkizuneko belaunaldiarentzat jasagarria den garapena.

Garapena modu globalean ulertzen dugu, herrialdeen arteko interdependentsian sinisten dugu, eta jendartea, pertsonak, politika eta ekonomia eraldatu behar direla uste dugulako, ondoko arloak landu nahi ditugu:

1.- Eragin politikoa: Iparraldeko zein Hegoaldeko plataforma, aliantza, sare edota errendikazio guneetan parte hartuz eta horiek indartuz, antolakunde soziopolitikoekin zein erakundeekin batera.

2.- Garapenerako hezkuntza , garapen eredu neoliberal eta patriarkala kritikatzuz: eredu horiei alternatibak proposatuz eta gure ohitura eta ekintzen inguruan gogoeta eta politizazioa bultzatuz (indarkeria matxistak salatu, elikadura burujabetza eta kontsumo kontziente eta arduratsua)

3.- Nazioarteko lankidetzaz eta elkartasuna: Latinoamerikako tokian tokiko antolatutako emakumeen eta herri indigenen erakundeekin batera sustatutako prozesuak lehenetsiz. Baita ere herrien burujabetza bultzatzeko Latinoamerikako eta Euskal Herriko mugimendu sozialekin batera lan eginez.

www.mugarikgabe.org

Boluntarioa edo bazkidea izan zaitezke gure lana babesteko:

ARABA

“Itziar” erakundearen etxea
01003 Gasteiz
Tel: 945 27 73 85
araba@mugarikgabe.org

BIZKAIA

Vicente Garamendi taldea 5, lonja
48006 Bilbao
Tel: 944 15 43 07 / 944 15 48 21
Fax: 944 16 67 96
bilbao@mugarikgabe.org


GIPUZKOA

Katalina Eleizegi 46, baxua, 3. atea
20009 Donostia
Tel / Fax: 943 44 59 77
Móvil: 656 70 85 98
gipuzkoa@mugarikgabe.org

Antolatzailea:



Babesleak:



Lankidetzaz Bulegoa
Negociado de Cooperación



AURKEZPENA

Herri indigenak, planetako habitat zein ekosistema guztietan daudenak (lurralde indigenak Lurraren gainazalaren %7a dira, gutxi gorabehera), 370 bat milioi pertsona dira, gutxi gorabehera munduko biztanleriaren %5a ordezkatzuz eta amerikar kontinentean 40 bat milioi pertsona kontabilizatuz eta lurralde honetako herrialde batzuetan gehiengo demografikoak suposatuz, esate baterako Guatemalan eta Bolivian; edo oso portzentaje handiak Ekua-dorren, Mexikon eta Perun legez.

Mugarik Gaberen prozesua, mugimendu indigenarekin harreman zuzena duen GKE gisa, eta beraz, baita herri indigenek, nagusiki amerikar kontinentean, egiten dituzten eskaera eta garatzen dituzten prozesuekin ere harremana duena, 90ko hamarkadako hasierakoa da. Ordudanik, erakunde hauekin burututako elkarlanak besteren artean Guatemalan, Bolivian edo Kolonbian burututako hainbat erresistentzia, borroka eta jazoera prozesuren bultzada suposatu du, baita gai indigena ardatz duten hainbat Zinema Erakustaldi, Euskal Herrian komunikazio indigenarekiko sentsibilizazio eta elkartasun tresna gisa. Horrela, egiaztatu ahal izan dugu XX. mendeko azken hamarkadak eta XXI. mende hasierak eragile sozial izateko mugimendu indigena desberdinen pausoa suposatu dutela, zenbait herrialdetan lehen mailako aktore politiko izateko; izan ere, gobernu desberdinen egonkortasuna mugimendu hauen menpe egotera iritsi baita.

Hala ere, gaur egun, nazioarteko mailan eta estatu mailan leku batzuetan erre-konozimenduan aurrerapausoak eman arren, herri indigenen eskubideak modu

larri eta sistematikoan urratuak izaten dira ia mundu osoan. Banakako eskubide eta eskubide kolektiboen urraketan testuinguru honetan, azken urteetan enpresa transnasionalek eta oso bereziki erauzketa industriak, aipatutako indarkeria horien iturri nagusienetako bat suposatzen dute. Herri indigenek egunero haien erresistentzia eta alternatibak altxatzen dituzte eredu menderatzailearen aurrean, horren araberrakoa baita haien bizirautea.

“Por los derechos de los pueblos. De la resistencia a la construcción/Herrien eskubi-deen alde. Erresistentziatik eredu berrien eratzera” kanpaina Mugarik Gabe 2014an garatzen ari den eskubideen urraketa larri hori salatzeke tresna eta pauso bat gehiago da. Esku artean duzun argitalpena, eta “Eutsi edo hil, Herri Indigenak enpresen neokolonialismoaren aurrean / Resistir o morir. Los pueblos indigenas frente al neocolonialismo empresarial” jardunaldiak emakume indigenen borroka, ezinbestekoa dena baina maiz ikusezina ere bai, aintzat hartzea ere xede duen kanpaina honen parte dira. Zentzu honetan, bai argitalpen honetan zein 2014ko martxoaren 17ko astean ospatuko diren aipatutako jardunaldietan, batez ere emakume indigenak dira protagonista eta haiek kontaktzen dute haien egoera, eta haien aldarrikapen eta borrokek zeintzuk diren.

“LURRAK BERE BURUA DEFENDATZEN DU”

Herri indigenek enpresa transnazionalen aldetik jasaten duten eskubide indibidual eta kolektiboen urraketaren errealitatea abiapuntu hartuta, eta herri horien aldarrikapenak eta eskaerak babestearren, CODPIi erakundeak (Herri Indigenen Eskubideen aldeko Koordinazioa¹) ondorengo mapa interaktiboa aurkezten du, **“La tierra se defiende”** izenekoa (“Lurra bere burua defendatzen du”). Tresna honen bidez, herri indigenek jasaten dituzten giza eskubideen urraketa guztiak sistematizatu nahi dira, Latinoamerikan zentratuz, betiere urraketa horiek kapital espainiarra duten enpresa transnazionalek herri indigenen lurraldeetan zuzenean edo zeharka egindakoak badira.

Hortaz, nagusiki erauzte-enpresei buruz ari gara (petrolio, gasa, mineralak), baina baita ere enpresa hidroelektrikoei buruz edo finantza-zerbitzuetan, abeltzaintzan edo nekazaritza intentsiboan ari direnei buruz. Eta ondorengo eskubide-urraketak jarriko ditugu mahai gainean, besteak beste: haien autonomiaren edota autodeterminazioaren aitortzea; bizitzarako, integritaterako edo nortasunerako eskubidea; haien lurri eragiten dien edozein proiektu ekin aurretiko kontsultarako eta onespen librerako eskubidea; desplazatuak ez izateko eskubidea, edo ingurunea kontserbatzeko eta babesteko eskubideak. Horiek guztiak eta beste asko nazioarteko tresnetan aitortuta daude, hala

¹ CODPI, Herri indigenen Eskubideen aldeko Koordinazioa, ondorengo antolakundeek osatzen dute: *Almárciga* (Estatu espainiarra), *Alternativa Intercanvi amb pobres indígenes* (Catalunya), *Perifèries del Món* (País Valencià) eta *Mugarik Gabe* (Euskal Herria)

nola Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenean (1989) edo Nazio batuen Herri Indigenen Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean (2007). Espainiako estatuak biak sinatu eta berretsi ditu.

Adierazten dugu mapa hau etengabeko eraikuntzan dagoen lanabesa dela, eta aipatutako urraketek kasu nabarmenatariko batzuk jasotzen dituela. Arian-arian osatzen joango da, harik eta identifikatutako 50 kasu islatu arte (gaur egun dagoeneko Amerika osoko 22 kasu ikus daitezke). Kasu horietako bakoitzerako fitxa espezifiko bat argitaratzen da –mapa interaktibotik eskuragarria–, zeinak jasotzen baitu urratutako eskubideen gaineko oinarritzko informazioa, herriek azaldutako erresistentziak eta egungo egoeraren laburpen bat. Hala, esan genezake mapa hiru informazio-mailatan eratzten dela. Lehengoa mapak berak osatzen du, eta bertan erregistratutako kasuak islatzen dira; bigarren informazio-mailan kasu bakoitzaren fitxa bakunera (leihoa) sartzea dago, non kasuaren sintesia jasotzen den. Eta azken horretatik fitxa osora sartzen da, jasotako informazio guztiarekin. Gainera, esteka batzuk gehitu dira, bibliografia eta ikus-entzunezko material osagarriarekin, sistematizatutako kasuetan gehiago sakondu ahal izateko.

Tresna honen beste osagai bat da mapak iragazi interaktibo bat duela, zeinak kasuen bilaketa erraztu eta inplikaturako enpresaren arabera, arazoa gertatzen den herrialdearen arabera edo enpresen jarduera-sektoreen arabera ordenatzea ahalbidetzen baitu.

Dokumentazio horrekin guztiarekin giza eskubideen gaineko indarkeria-egoera horiek islatu eta salatu nahi dira. Hori garrantzitsua da eta gero eta beharrezkoagoa, batez ere enpresek eurek eta komunikabide gehienek ostendu nahi dituztelako urraketa horiek, klase politiko tradizionalaren konnibentziarekin. Tresna honek erabilgarria eta efektiboa izan nahi du herri eta antolakunde indigenentzat

zein haiekin lan egiten duten entitateentzat eta mundu akademikoarentzat eta gizarte mugimenduentzat, bereziki nazioarteko lan-kidetzan eta elkartasunaren arloan jarduten duten horientzat. Halaber, eragingarria izan nahi du transnazionalak botere ekonomiko eta politiko gisa (estatuaren jardueren gainean duten kontrolagatik) egiten dituzten ekintzen jarraipenean.



Herri indigenen eta enpresa transnazionalen arteko gatazken mapa

<http://www.codpi.org/territorio-y-recursos-naturales/observatorio/mapeo>

“EZ AL DUGU HONEKIN GUZTIAREKIN AMESTEN?”

XIX. mendean, latinoamerikar intelektual eta lehendakariak herri indigenen behin betiko desagertzea dataren aldeko apustua egiten zuten. Iragarpen hauek betetzetik urrun, herri hauek azken 20 urteetan Latindar Amerika eraldatu zuten koalizio politikoen erdigune bilakatu ziren.

Martin Cuneo eta Emma Gasco (Crónicas del estallido, Icaria, 2013ren egileak)

1992. urteak Latinoamerikako historian “haustura” bat suposatu zuen. “Herri indigenak jabetu dira 500 urte eta gero bizirik badiraute, bere historia eta etorkizuna berriz hausnartzeko aukerekin, erresistentzia gaitasun oso handia izan dutelako dela. Ez dute atzera gehiago egin nahi eta aurrera egiten hasi nahi dute”, dio Gustavo Macayok, Argentinako Patagoniako maputxeen hamarnaka komunitateren abokatuak.

Bi urte lehenago, 1990ean, jadanik jazoak ziren 1781ean zatikatua hil aurretik Tupaj Katarik esan zuen profetia hari, “itzuliko naiz eta milioiak izango naiz”, zentzua ematen hasten ari ziren lehen bi altxamendu handiak. Bolivian, Lurralde eta Duintasunaren aldeko lehen Martxak 1,5 milioi hektarearen tituluak lortu zituen. Eta urte hartako ekainean, ehun milaka indigenak Quito hartu zuten komunitateen triskantza suposatzen zuen politika ekonomiko baten aurka.

Aurreko urtean Berlineko harresia erori zen, altxamendu zapatistarako lau urte falta ziren eta bederatzi Seattle-n antiglobalizazio mugimendua lehertzeko. Margaret Thatcherrek azpimarratu egiten zuen oposizio oro alferrikakoa zela eta Francis Fukuyama politologoak baieztatu egiten zuen harrezkero

ezerk ezingo zuela politika neoliberalen hedapena oztopatu.

Ohiko alderdi politiko eta sindikatuetatik at antolakuntza modu berriak sortzen ari zirela ikusten ez zuten jakin. Askapen teologiaren eragina, herentzia komunista eta herri indigenen mundu-ikuskerak bere bizimodua erasotzen zuten politikari aurre egitera mugatu ez eta gizarte desberdin bat sortzen ari ziren mugimendu erraldoien oinarria sortu zuten. Kolonbiako Cauca Kontseilu Erregional Indigenaren kasua da, milioi erdi hektareako lurralde batean “gobernatzen” du, zeinetan modu asanblearioan 300.000 bat pertsona koordinatzen diren. Euren babeslekuetan, modu autonomoan kudeatutako 15.000 guardia indigenek eragile armatuak, narkotrafikoa eta meategiak arrastotan sartuta mantentzen dituzte.

Beste adibide bat Ekuadorreko Nazionalitate Indigenen Konfederazioa da (Canaie). Honek 90. hamarkadan legeetan aldaketak bultzatu zituen, eta hainbat sektorearen altxamendua artikulatu zuen. Hauek, pribatizazioak eten zituzten, oinarrizko zerbitzuak defendatu eta lehendakari neoliberalen erorketan erabakigarriak izan ziren “ezer ez soilik indioentzat” lelopean.

Zapatistek, 1994an armetan altxatu zirenean, defendatzen zuten printzipio bera zen; SESBen erorketatik lehendabizikoz mundua aldatzeko ideia irekiak eskainiz. Zapatismoak “guztia eraldatu zuen”, dio Gustavo Estevak, Oaxacako Lurraren Unibertsitatekoa, ez soilik Mexikon, kontinente osoan baizik: “Zapatistek planteatu zutenean kontua ez zela boterea hartzea erreboluzioa egiteko, postura horrek eraldaketa asmoa zuregana eta nire-

gana ekarri zuen, herri bakoitzera eta komunitate bakoitzera”.

Bai Bolivian eta bai Ekuadorren, mugimendu indigena buru zuen herri eferbeszentziak “antzinako erregimena” ondortzen bukatu zuen eta mugimendu honen eskariak berezkozat onartu zituzten -gehienak diskurtsoan, batzuk praktikan- formazio politiko berrien gorakada ahalbidetu zuen.



“Zer lorpen izan du yuppi biraoiti hauen politika neoliberalak? Bat ere ez”, planteatzen du Julieta Paredes feminista boliviarrak. “Gure neba eta ahizpek, haietariko asko nekazariak, Gobernua hartu dute, hau gurea ere bade-lako”, dio Paredesek 2006ko Evo Moralesen garaipenari dagokionez. Herri indigenak, ideien mestizajeak aberastua, Bolivian, Perun, Ekuadorren, Kolonbian, Guatemalan edo Mexikon aldaketa eragile nagusi bilakatu ziren.

Baina “eztei-bidaiak” gobernu berri hauekin ezin zuen iraun. Multinazionaleri egindako baliabide naturalen entrega berriaren aurrean -lehengaien prezioen igoerarekin- herri indigenek, beste behin ere, erreboluzioaren liderrak izateko ardura izan dute.

Ikaskuntzak

Latinoamerika bizitza modu eta antolakunde politiko kopuru handienetakoa mantendu duten planetako erregioetako bat izan da -zioen orain dela gutxi Mugarik Gabeko Jesus

Gonzalezek-. Hain zuzen ere heterogeneitate horrek -mendebaldeko munduan gailentzen den uniformeta-sunaren kontra-, alternati-bak bilatzeko aukera ematen du.

Komunitatearen eta ondasun komuneren defentsa, demokrazia zuzen eta parte-hartzailea, zeinetan liderrek “men egiten agintzen duten”, naturarekiko harreman berezia edo autonomia espazioen eraketa zeinetan beste mundu

posible hori eraikitzen doan, dira mugimendu indigena hauen ekarpen nagusiak. “Ondo bizitzea” kontzeptuaren barruan kokatzen diren ideiak guztiak ala guztiak.

Cuencako alkatetzan, Ekuadorreko hegoaldean, nazionalitate indigenadun ehunaka ordezkariak Blanca Chancosoren mezua, Conaieko lider nagusietako bat, aditu zuten 2011an. Berak sumak kawsay zer den azaltzen zuten. “Batzuetan gizakiak eta natura banatu egiten ditugu, eta nik diot: gizakiok, zer gara? Zertaz gaude eginak? Ez al dugu guztiok bizitza duin bat izatearekin amets egiten? Ez al dugu guztiok gure beharrak: janari ona, bizitokia, hezkuntza, osasuna aseta sentitzearekin eta esplotazio hau ez egotearekin, batzuk besteen gainetik ez egotearekin, inposizio gehiagorik ez egotearekin, naturaren degradaziorik ez egotearekin amesten, naturaren barne gu egonda? Ez al dugu honekin guztiarekin amesten?”.

Infomazio gehiago: www.cronicasdelestallido.net

“Lurralde zahar bat meatzaritzatik babestea emakumeen gorputzak sexu-indarkeriatik babestu gabe, inkoherentzia kosmiko eta politikoa da.”

Tamara de Gracia¹ – Diego Jiménez

Lorena Cabnalek emakume maya-xinka eta komunitate-feminista gisa aurkezten du bere burua. Bere gorputzean eta sentimenduan zapalkuntza desberdinak gurutzatzen dira, hainbat asaldura jaiotzen diren aldi berean. Asociación de Mujeres Indígenas de Santa María Xalapán, Jalapa (AMISMAXAJ) elkar-tearen sortzaile, ez du saihesten kapitalismoa eta bere herria menderatzen duen kolonialismoa, ezta komunitateetan indarrean jarraitzen duen patriarkatua ere modu gordinean kritikatzeko.

Nola definituko zenuke oraingo momentua herri indigenentzat?

L.C.- Momentu historiko batean gaude, herri indigenak alternatibak planteatzen ari gare-lako mundu mailako zibilizazio krisiaren aurrean, kapitalismo neoliberalaren eraginen kontrako erresistentzia moduak bilatzen: kolonialismoaren, patriarkatuaren eta globalizazioaren aurka. Orain munduko beste herri batzuek gure proposamenak kontuan hartzen dituzte, Ongi Bizitzearen sorrerako paradigma berreskuratzeko bidea ematen duen bizitzeko era desberdin gisa.

Uste dut erabateko kontzientziako prozesu sakonak direla, herriek unereri batean bizitzarako bateratzeko aukera izan dutela gogortzekoa.

Gainbehera planteatzen duten beste herri batzuk daude: kontsumismoak eta alienazioak naturaren elementuen erabilpenean denboran luzatu den arduragabekeria izan dutela ikustera eraman dituzte. Eta planeta ordainak eskatzen ari da berotze efektuarekin. Gaur egun, jatorrizko herrien proposamena eta be-

reziki emakume indigenena munduan indartzen ari da, mugimendua, ekintza eta bizitza. Geroz eta beharrezkoago egiten zaigu gure esperientziak idaztea proposamenaren eta ekintzaren eraikuntza globalari ekarpena egiteko.

Zeintzuk dira, hortaz, erronkak testuinguru honetan?

L.C.- Boliviako aldaketa prozesua bezalako prozesu hain garrantzitsu eta historikoei artikulatzeko aukerak daudela erakusten digute, emantzipazioa bilatzeko beste bide batzuetatik. Baina utopiaren horizontea antzemateko erronka falta zaigu, hautaketa prozesu herritarrek boterera iristeko hautagaiak jartzeko aukera ematen digutela pentsatzen badugu hor gelditzen garelako, korapilo batekin topo egiten dugu. Aldaketa prozesua ez bada garrantzitsutzat jotzen, baina bai beste zerbaitetara iristeko trantsizio gisa, blokeatu egiten gara. Plurinazionalitatea instituzionalizatzen bada eta hortik eraikitzen bada dena, hankamotz geldituko gara.

Ezinbesteko beste erronka bat burutu beharreko autokritika da, beharrezkoa mugimenduen indigenen barruan eta munduko gizarte mugimenduetan barne mailan ditugun problema handiei konponbidea topatu behar diegula ikustarazteko. Adierazpen patriarkalen berezkoak diren moldeez ari gara. Mugimendu indigenan, esate baterako, ezin dugu patriarkatuaren existentzia ukatu eta hortaz matxismo indigenarena; ez daukana zerikusirik mendebaldeko kolonialismoarekin. Uste dut ezin dugula borroka partziala burutu, ezin da patriarkatuarekin amaitu fundamentalismo etnikoak eta emakume indigenak menderatzen dituzten esentzialismoak ezabatu gabe. Instituzionalismoak soilik, ez du patriarkatuaren arazoa konponduko.

¹ Tamara de Graciak Mugarik Gabe GKEan parte hartzen du eta Diego Jimenezek Herri Indigenen Eskubideen Koordinazioan (CODPI).

Lagundu ahal diguzu lurraldearen ikuspegi ulertzen zure emakume maya-xinka, komunitate-feminista ikuspuntutik?

L.C.- Ez da gauza bera herritar pentsamolde baten barruan lurraldeaz hitz egiten denean (espazio geografiko, lege eta biztanleriaren batura) edo mundu-ikuskeraren indigenatik definitzen dugunean. Horregatik guretzat lurraldea zer den berrizendatzea erabaki dugu, gure pentsamoldeetik..

Guretzat lurraldea izateko eta egoteko espazio bat da. Lehen eta orain, denboretan eta kosmosarekiko harremanean. Dena dago hain integratua ezen esanahia eraikitzen dituzun lekuetatik planteatuta dagoela, bestekin eraikitzen duzun espaziotik, harremanak osatzen dituzun lekua eta baita espazioarekin, kosmosarekin konektatzen duzun lekua ere.

Gauza materialekin zerikusia du, baina materiagabeekin ere. Zehaztasuna gaingiditzen du: subjektibotasuna barneratzen du, afektibitateak, lurrarekiko loturak. Zerbait osoa da.

Eta lurralde-gorputza kontzeptuaz hitz egiten denean?

L.C.- Hori, komunitate-feminista gisa erantsen dugun beste gauzetako bat da, 2008an sortu genuen kontzeptua da. Guretzat kontsigna politiko gisa hasi zena komunitate-feminismoaren barruan kategoria sortu da; gorputza-lurra lurraldearen defentsa eta berreskuratzearekin zerikusia du.

2008an mendialdean meatzaritzaren kontrako borroka altxatu zen (Xalapán, xinka herriaren lurraldea) eta mugimendu indigena nazionalaren barruan lurralde-lurraren defentsa osotasun gisa planteatzen zela ikusi genuen. Gero lurralde-lurraren defentsa horrekin historikoki emakume eta feministek emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeke burututako borroka iluntzen hasten zela iruditu zitzaigun. Orduan, horren guztiaren barruan gure lurralde-gorputza non gelditzen zen planteatu genuen. Enuntziatu beharra genuen.

Lurralde-lurraren defentsa meatzaritzatik libre egon dadin oso orokortua dago, baina honen barruan zapalkuntza eta indarkeria pairatzen duten emakumeen gorputzak bizi dira. Hortik jaitzen da lehendabiziko lurraldea den lurralde-gorputzaren berreskuratze eta defentsaren planteamendua. Ez gara Ama Lurrarekin harmonizazioaz hitz egitearen aldekoak ez bada emakume eta gizonezkoen arteko harmonia harremanik existitzen. Antzinako lurralde-lurraren defentsa egitea meatzaritza miaketa eta ustiaketaen 31 lizentziaren aurka indarkeria sexuala jasaten ari diren emakumeen gorputzak defendatu gabe inkoherentzia kosmiko eta politikoa dela planteatzen dugu.

Elkarrizketa osorik irakurtzeko:

<http://www.mugarikgabe.org/herrieneskubideak>



Viena +20 Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Auzitegia multinazionalen eskubide-urraketen aurrean

Eskubideen ikuskeraren arabera, baztertu-tako sektoreei boterea emateko lehenengo pausoa da aitortzea estatua behartzen duten eskubideen subjektu direla. Hala, logika aldatzea nahi da, abiapuntua izan dadin zenbait prestazio eta jarrera eskatzeko eskubidea duten subjektuak badirela (OIT&PNUD 2009).

Beharrezkoa da, lehenengo eta behin, gogoratzea jarduera ekonomikoen azken xedea izan behar dela bizitzaren iraunkortasuna, alegia, bizitzaren erreprodukzio hedatuaren prozesua. Prozesu horretan sartzen dira, Hortaz, giza beharriaren asebetetzea, material zein afektiboak, inguru sozial eta ingurumen aldetik jasagarri batean.

Premisa horiek aurrean, gaur egun, globalizazioaren protagonista "izarretako" bat da enpresa transnazionala (ETN), zeina, estimazioen arabera, munduko merkataritzaren bi heren hartzen baitu. ETNek nazioarteko sistema ekonomikoan hartu duten garrantzia estuki loturik dago merkatuaren aldeko doktrina ekonomikoekin, zeinek lan egiten duten kapitala pilatzearen, giza-eskubideak urratuz. Horrek modu berezi eta erradikalean eragiten die emakumeei, zeinek, sarri askotan, kriminalizazioa jasan behar baitute eskubide horiek defentsan aritzeagatik, bai eta zigorgabetasun sistematikoa.

Hori kontuan izanik, 2013ko ekainaren 7an eta 8an Viena +20 Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Auzitegia egin zen Bilbon. Bertan, hainbat talde eta kolektibo feministak hartu zuen parte.

Auzitegi horretan emakumeen eskubideen 8 urraketa salatu ziren, hainbat herrialdetakoak. Horietako bat izan Barillaseko Q'anjob'al etniako liderra Hermelinda Simónek kasua, Ecoener Hidralia Energía - Hidro Santa Cruz enpresa espainiarraren eta Guatemalako Estatuaren aurka.

Hermelinda Simónek agerraldia egin zuen eta salatu zuen Barillaseko milaka emakume q'anjob'al eta mestizok bizi duten egoera konplexua, petrolio- eta meatze-proiektuak eta enpresak indarrez etortzeak dakarren eredu ekonomikoaren inposizioaren mehatxuaren aurrean. Kasu zehatz horretan kapital espainiarra duen Ecoener Hidralia Energía - Hidro Santa Cruz enpresa heldu zenetik.

Emakumeei lasaitasuna eta etorkizuneko ametsak kendu dizkiete, izan ere, haientzat, lurraldea defendatzeak esan nahi du uraren, bizitzaren, lurraren eta gizateriaren geroaren aldeko apustua da. Hori dela eta, hasieratik batu dira bizitzaren aldeko borroketara, arpilatzea, erauzketa eta natura suntsitzea dakarren proiektuaren aurrean. Emakumeek bategin dute herri oso baten borrokarekin.

2009. urtetik, Empresa Ecoener- Hidralia enpresa herri eta komunitateen borondatearen kontra aritu da lanean. Komunitateek hasitako borrokaren ondorioz, enpresa komunitate horietako liderrei mehatxuak egin zizkien, eta gatazkaren fase kritikoenean lider bat hil eta beste bi zauritu egin zituzten.

Hortik Aurrera, kasu honen aitzakiapean gertatzen ari den jazarpen penala, gertakariengatik aldarrikapena haien gain hartu duten liderren kontrakoa da. Prozesu penala zigor-tresna gisa ari da erabiltzen zentral hidroelektrikoa eraikitzearen aurka dagoen Barillaseko mugimendu soziala kriminalizatzeke, jazaritzeko eta desartikulatzeke. Aurkezpenaren ondoren, Begoña Zabala fiskalak bere balorazioa eman zuen auzitegian emandako kasu bakoitzean urratu ziren eskubide eta nazioarteko araudiei buruz.

Viena +20 Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Auzitegiak bere azken ebazpena eta kasuan kasuko gaitzespena agertu zuen.

Zehazki, Q'anjob'al emakumeen eskubideen urraketan aurrean, bereziki Hermelinda Simón lider komunitarioaren kasuan, Emakumeen Eskubideen Auzitegiak ondorengoak kondenatzen ditu:

- Ecoener Hidralia Energia- Hidro Santa Cruz enpresa, Barillaseko lurraldea okupatzeagatik, inguru horretako emakumeak jazarri eta erasotzeagatik, eta bizimodu osoaren baldintzak aldatzeagatik
- Guatemalako Estatu, Ecoener Hidralia Energia enpresaren presentzia baimentzeagatik. Komunitatearen erabakia ez errespetatzeagatik, LANEren 169. Hitzarmena urratuz
- Guatemalako Estatu, enpresaren aurrean emakumeen bizi-baldintzak ez babesteagatik (indarrez mugiarazi ditu eta lurrak kendu dizkie), eta laguntza militar eta polizia emateagatik
- Guatemalako Estatu, emakumeen kriminalizazioa baimendu eta errazteagatik, eta arrazoirik gabeko prozesatzeengatik.
- Guatemalako Estatu, emakume liderren parte-hartze politikoa guztiz mespretxatzeagatik, haien ausardia zigortuz
- Eta estatu, nazioarteko organismoa eta Guatemalako Estuari ondorengo eskatzen die:
- Onartu ditzatela enpresa transnazionalak giza eskubideak errespetatzen behartzen dituzten araudiak, jarduten duten leku guzti-guztietan.
- Ikertu ditzatela Ecoener Hidralia Energia-Hidro Santa Cruz enpresa bertan ezartzearen ondorioz Barillaseko emakumeen jasandako eraso eta jazarpenak.
- Osorik eta guztiz errespetatu ditzatela q'anjob'al herriaren eskubideak, 169. hitzarmenean Herri Indigenen Eskubideen Adierazpenean jasotakoak: natur baliabideak izateko eta inolako entitate pribaturi ez emateko eskubidea, hain zuzen ere.



Hermelinda Claret Simón

MEATZE MEGAPROIEKTUAK EMBERA LURRALDEAN, ANTIOQUIAN – KOLONBIA

Estatu kolonbiarrak, meatzaritza gaiaren aurrean hartutako politikekin, Herri Indigenen eskubideak zapaltzen ditu alderdi soziokulturaletik, baita lurraldetasunaren eta ingurugiroaren aldetik ere; lurralde indigenen meatzaritza esleipenak bereizi gabe eta arrapaladan ematearekin kontsultarako, onespen liberako eta aurretik herriei berri emateko oinarritzko eskubidea izan gabe eta gainera, lurraldeetan haien antzinako presentzia ukatuz. Garapen politikak ere ez dira kontsultatuak izan, Meategi eta Energia Ministerioaren aldetik Frontino meatze-barrutiaren adierazpenaren kasua bezala. Honen arabera, estali egiten da ez soilik 1952ko 2. legearen arabera definitutako baso-erreserbaren eremuekin, horretaz gain, desagerpen fisiko eta kultural bidean¹ dauden Antioquiako Departamentuaren parte diren Embera herriko 282 mila hektareako eremua duten 22 babesleku indigenari gainjarri egiten zaio.

Babesleku indigenen zati handi bat meatzaritza ustiapenerako eskatuta eta emanda aurkitzen dira. Egoera hau larri bilakatzen da estatuko politikek eta mundukoek ingurugiroan eta baliabide naturaletan duten eraginagatik, Antioquiako lurralde indigenen zati handi bat arriskuan jarritz; izan ere, herrialdeko meatze-energi legeen ondorioz herrialdeko lurren zati handi bat eskaintzen da multinazional handien jarduera pribatua pribilegiatuz, ekosistemantzako eta bertako eredu ekonomikoetarako estrategikoak diren hedadura handiak

¹ Lurraldea eta Ingurugiroa Programak eraikitako datua. SIG-OIA geoerreferentzia informazio zerbitzua.


mehatxatuz meatzaritza-baliabideen berehalako ustiapenarengatik.

Aipagarria da, antzina San Carlos de Cañas Gordas babesleku handi gisa ezagutzen zenekoan Embera herriarentzako 30 bat babesleku eraiki direla eta arbasoen lurralde honen zati handi bat meatze esleipen gisa eman da kontsultatu gabe; guztira, Embera herriaren lur indigenen %38a suposatzen duten 108 mila hektarea. Hala ere, Antioquiako Erakunde Indigenak (gaztelaniazko siglak: OIA) egindako analisiaren arabera, lurralde indigenaren %70a esleipenean edo horretarako bidean dagoela balioztatzen da.

Gaur egun, zonaldean, lurralde indigenen barruan, Miranda Gold Corporation Amparadónen -Dabeidako udalerrian-, eta Anglogold Ashanti eta Frontinoko udalerrian aritzen den Glencore Murrin multinazionalen ordezkatzailak diren Dowea S.A. eta Exploración Pantanon S.A. enpresek jarduten dute; zehazki, Pegadocito urtegien proiektuaren baitan. Erdiko Atratoan, Care Perro muinoaren esplorazio eta ustiapenerako esleipen kontratuen sinaduraren bidez La Muriel Mining Corporation enpresa, gaur egun Sunward Resources Ltda., britainiar-australiar Rio Tinto² transnazionalarekin eta Hidrokarburoen Agentzia Nazionalarekin batera esplorazio ariretak burutzen ari dira, Emberako komunitatei aurretik kontsulta prozedura egokirik egin gabe. Gainera, meatze-tituluak eman zaizkie lurralde indigenetan pertsona naturalei eta beste meatzaritza enpresei.

Embera ziurtagirietan enpresa eta esleitutako tituluak duten pertsonen arteko erlazioaren arabera eta lurraldeen osotasunaren portzen-

² <http://www.primerapagina.net.co:9080/Primera/mostrarpagina.jsp>



tajearekiko erlazioaren arabera, "jabe berriei" buruz hitz egiten da, lurrazen jabetza gatazka eragiten duen egoera eta argi eta garbi nazioarteko mailan aitortutako herri indigenen eskubide konstituzional ororen bortxaketa dena. Babesleku indigenetan meatzaritza titulu hauen esleipenak herri indigenak bahituezin, iraunkor eta besterenezin gisa babesten dituen printzipioa urratzen du.

Enpresa hauen presentzia gatazka armatua areagotzen duen faktore bilakatzen da. Indar publikoen operazio militarren hazkundera ematen da FARC eta neo-paramilitarismoaren adierazpen gisa Bacrim deiturikoak modu aktiboan dauden zonaldeetan; Uraba, Urrao, Mendebaldea eta Antioquiaren Erdiko Atratoaren zonaldeetan, hau da, Ipar Batolito Mande zonalde gisa ezagututakoan.

Babesleku asko, bere lurraldearen zati handi batean kaltetuak gerta daitezke eta xedatze hauetako bat ere ez da aurretik departamentuko Embera komunitateren batekin kontsultatu.

Gainera, meatze-proiektu hauek Jaibana eta botanikari askok sendatzeko eta espiritu txarrak uxatzeko belarrak bilatzen dituzten leku sakratuetako asko estali egiten dituzte; izan ere, eragile armatuen presentziagatik eta baliabide naturalen eraztearekin eta legez kontrako laborantzarekin erlazionatutako ekonomiarengatik bortxatuak izaten hasten ari dira.

Makroproiektu hauek arriskutan jartzen dituzte baliabide hidrikoak (ura), fauna basatia eta uretakoa (animaliak), leku sakratuak eta lurraldearen osotasuna. Mandé Norte megaproiektuak, Mandéko Bloke Batolitoaren parte

dena, Usa Eya Quira Darra muinoa suntsituko du (Care Perro muinoa). Hau leku sakratu nagusia da eta bere inguruan tamaina berdineko leku gehiago existitzen dira, Atrato ibaiaren Erdiko arroan eta Antioquiako mendebaldeko mendikatean bizi den Embera herriaren leku sakratuen sistema bihurtuz.

Embera herriaren kosmologiaren arabera, muino honetan pertsona gaixotasunak eta kalteak eragitea saihesteko Jainbanásek kanporatu zituzten espiritu txar guztiak bizi dira. Muino honetan esku-hartzean, espiritu hauek beste lurralde batzuetara aterako dira eta Emberen ongizate fisiko eta psikologikoa arriskuan jarriko dute. Muino honetan, wandrak edo animalien gurasoak ere badaude; hauek haien babeserako espirituak dira eta haien desagerpenarekin beste espezie askoren bizirautea ere arriskuan jarriko da.

YESAKO HANDITZEA

Enpresa Transnazionalen gehiegikeriak eta eskubideen urraketak, administrazio publikoen konplizitatearekin, ez dira Latindar Amerikan eta Hegoaldeko beste eskualde batzuetan soilik ematen diren gertakariak, guregandik oso hurbil ere Nafarroa eta Aragoi artean dagoen Yesako urtegiaren handitzea bezalako kasu larriak ematen dira, honek lurralde indigenetan gertatzen diren kasuak gogorarazten dizkigu. Iker Aramendiak, “Yesa+no, lanak gelditu” plataformakoa, han gertatzen ari dena eta aurre egiteko nola antolatzen diren kontatzen digu.

1928an gaur egungo Yesako presa egiteko lanak hasi zirenetik, arazo geologikoen proiektua baldintzatu dute etengabe. Hainbat eta hainbat izan ziren obraren zuzendaritzatik pasatako ingeniariak eta joan etorrien 31 urteren ostean, Francok inauguratu zuen, René Petiten zuzendaritzapean, 1959an. René Petitek berak, aurrerago onartu egingo zuen akats geologiko baten ondoriozko presaren kolapsoak loa kentzen ziola eta, handitze posible baten berriaren aurrean eskuak burura botatzen zituen, arazo geologiko horren aukera areagotzen zuela jakinda.

1993tik desplazamendu larrien aukeraz ohar-tarazten duten txosten teknikoak existitzen dira eta 2006an lurraren 3,5 milioi m³ mugitu zituen lerradura larri bat egon zen (Administrazioak ia urtebetez isilean gordea). Lehena-gore ere, 1930etik, beste lerradura batzuk jaso dira. Baina ezer ez aurreko otsailean gertatutakoarekin alderatuta, izan ere, handitze

lanek eraginda presa sostengatzen duen eskuineko mendi zatiaren lerradura erraldoi bat eman zen eta haren ondorioz 60 etxebizitza deslojatu ziren aurreko abisurik gabe. Lerradurak 500m x 500m-ko tamaina du eta 100m-ko sakonera. Hilabeteko 15zm-ko abiadura lerratzen da eta ordura arte ezezaguna zen Larrialdi Plana martxan jarri behar izan zen (54 urteko atzerapenarekin!), arrisku maila bi gradutan handituz: hormigoizko presa bere eskuineko zubi-brankan 14mm altxatu da. Urduritasuna hazten da Administrazioan eta larritasuna estaltzen saiatzen dira, gertakari hauek aitortzen zituzten txosten batzuk argitara atera ziren arte. Horietan, 2012ko ekaineko lerraduraren berri ere bazutela agerian gelditzen zen, baina ezkututzen saiatzen dira etxebizitzetako kalteek ezinezkoa egin zuten arte.

2013ko otsailetik eta 10 hilabetez diru publikoko 25 milioi € gastatu dituzte behin betikoz eteten saiatzen, mendiari lurra kenduz eta urtegiara botaz, 24 orduz, asteko 7 egunez. 2013 osoan zehar ukatu ostean, euren xedea lortu ez dutela aitortu behar izan dute: magalak, abiadura txikiagoan bada ere, lerratzen jarraitzen du eta uretan behera arrisku maila berdinarekin jarraitzen dugu. Hala ere proiektuak aurrera jarraitzen duela baieztatzen dute, eta ez dagoela batere arriskurik.

Gaur egun badakigu proiektuaren erredakzioan koefizienteak faltsutu direla eta desir-atutako emaitzak lortzeko datu garrantzitsuak ezkutatu. Gure bizitzak arriskuan jartzen ari

direla, 2001ean hasi eta 2009an bukatuta egon behar zuten arren seguruenik inoiz bukatuko ez diren lanekin jarraitu ahal izateko xede hutsarekin. Jadanik hasierako aurrekontua xahutua dute eta hau 113 milioi eurokoa izatetik 376 milioi eurokoa izatera pasatu da. Gaur badakigu gure bizitzak arriskuan jartzen ari direla gobernatzen gaituztenek lanak aurrera eramateaz arduratzen diren enpresekin hartutako konpromisoak betetzeko helburu soilarekin; sobera ezagunak diren FCC, ACS, Ferrovial eta beste enpresa batzuk.

Yesako urtegia Nafarroa eta Aragoi artean aurkitzen da, presa Nafarroan dagoelarik eta urez betetako lurraldearen %96a Aragoi. Bertan ia 2000 pertsona euren etxeetatik kanporatuak izan ziren eta gaur egun zigortutako eskualde aragoiar honi akabera eman nahi diote Yesa handituz. Uretan behera, gure herriak gure kabuz deslojatzen ikasten ari gara halabeharrez, Udalak eta herritarrak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarik gabe; hauek enpresekin dituzten harreman biziatsuak mantentzearen alde egiten dute, arazoari aurre egin beharrean.

2007. urtean Río Aragón Elkarteak zentzugarria honen aurkako borrokari buruz informatu eta borrokara biltzeko animatu gintuenetik, informazio-ekintzak burutzen aritu gara eta ostiraleko kalera atera gara. Honek une erabakigarrietan informatuta eta erne mantentzea ahalbidetu digu. Instituzioek eta herritarren zati handi batek arazo honetan be-

girada jartzeko gai izan gara; 2013an Zangozan, 9000 biztanleko eskualdeko hiriburuan, 4000 pertsona baino gehiagoko manifestazio bat burutzera iritsiz.

Une honetan elkarte legal bihurtzeko prozesuan aurkitzen gara. Honek, Elkarte desberdinekin elkarlanean, enpresen etekina eta beste aldrebeskeria den Ebro ibaiaren uraren joanaraztea bezalakoak -hau baita obra honen helburu nagusia-, bilatzen dituen bidegabeko proiektu zaratsatu eta arriskutsu honen behin betiko etetea lortzeko beharrezko pausuak ematea ahalbidetuko digu.

Iker Aramendia Landa,
“Yesa+no, lanak gelditu” ekimenaren izenean
(Zangozaldea, Nafarroa)



LURRA, LURRALDEA ETA ELIKADURA-BURUJABETZA

XII. mende bete-betean gaudela, ia 1.200 milioi pertsonak gosea pairatzen du. Horietatik %75 nekazariak dira, eta emakumeak eta neskatok dira gehien pairatzen dutenak. Baina hau ez da elikagaien eskuragarritasuneko arazo bat, baizik eta borondate politikoko eta interes ekonomikoetako arazoa. Elikagai-sistema industrialak ekoiztako jazien erdia merkatuaren baldintzetara ez egokitzeagatik baztertzeko jarraitzen duen bitartean, nekazari txikiak nekazaritza industrialaren mesedetan lurra galtzen jarraitzen duen bitartean, autoak elikatzea (biodiesel) pertsonal elikatze baino garrantzitsuagoa den bitartean, eta burtsako espekulazioak oinarritzeko laboreen prezioa igoarazten jarraitzen duen bitartean, sei gizakietatik batek gosea pairatzen jarraituko du.

Egoera horren aurrean, Elikadura Burujabetzak proposamen politikoa gisa sortzen da, zeinak defendatzen baitu herrien eskubidea elikagai nutritiboak eta kulturalki egokiak kontsumitzeko eta ekoizteko, elikagai eskuragarriak, era jasangarriaren eta ekologikoaren ekoiztakoak. Halaber, defendatzen du elikadura- eta ekoizpen-sistema propioa eta herriek haien nekazaritza-politikak erabakitzeko duten eskubidea. Elikadura Burujabetzak tokiko ekonomia eta merkatuak lehenesten ditu transnazionalen interesen aurretik, eta elikagaien ekoizpena, banaketa eta kontsumoa ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-iraunkortasunaren oinarriaren gainean kokatzen du.

Alde horretatik, elikadura-burujabetza gai da nekazaritza iraunkorrean oinarritutako laborantza-eredua, eskala txikiak, tokiko kultura eta tradizioekin bat datorrena bermatzeko, eta alternatiba bidagarria da –bai gure inguruan bai edozein lurraldetan– elikadurarako eskubidea ziurtatzeko, bizi-iturriak babesteko (ura, lurra, basoak, ibaiak, itsasoak, haziak, landareak eta tokiko animalia-espezieak) eta justizia soziala sustatzeko.

Herri indigenek milaka urtez praktikatu eta defendatu dute ondo bizitzea, bizitzaren, natur munduaren eta izaki bizidunen arteko harremanen ikuskera gisa. Bertan, pertsonak komunitatearekiko atxikimendu handia dute, existitzen den guztiarekiko errespetu handia gordez eta naturarekin orekan. Izan ere, naturaren partetzat dute haien burua, ez naturaren jabetzat. Herri indigenek lurraekin eta pertsonekin duten harreman ez instrumental honi esker, ikuskera horrekin egiten den nekazaritza guztiz koherentea da elikadura-burujabetzaren printzipioekin.

Globalizatutako eredu agroalimentarioaren eta laborarien ereduaren arteko borroka eragin larria ari da izaten Herri Indigenetan. Agroindustria esportatzaileak baliabide produktibo eta genetikoak pribatizatzen ditu (lurra, ura eta haziak), eta zenbaitetan herri indigenek bizileku diren lurrez ere jabetu dira, titulartasun ofizialik gabekoak baitira, nahiz eta indigenak bertan belaunaldi luzez bizi izan diren, modu xumean eta biodibertsitatea zainduz. Beste zenbaitetan, eraztearen sektoreko transnazionalak, kaltetutako herri indigeneen baimenik gabe, meatze- edo energia-jarduerak hasi dituzte haien lurraldeetan, komunitate osoak desplazatzera behartuz, ibaiak eta akuiferoak pozoituz eta indigenek nekazaritza- eta elikadura-autosufizientzia ezinezko bihurtuz. Horrek, gainera, ondorio larriak ditu gizakien osasunerako.

Horregatik guztiagatik, lurra eta lurraldea eskuratzeko eta eskubideak izateko aldarrikapenak beharrezko premisak dira elikadura-burujabetzan aurrera egin ahal izateko. Erresistentziarako unea da, han eta hemen, lurraldea defendatzeko unea, herrien duintasunaren eta bizitzaren alde, guztiontzako eta datozen belaunaldietarako bitzita duinaren alde.

Fatima Amezkua, Mugarik Gabe, 2014ko otsaila

HERRI INDIGENEN ESKUBIDEEN URRAKETA ETA GURE KONTSUMO OHITURAK: ZER EGIN DEZAKEGU?

Argitalpen honetan zehar frogatu ahal izan dugunez, herri indigenetan jardun eta eragin negatiboa duten enpresa transnazionalak nagusiki ondorengo sektoreetakoak dira: nekazaritzako elikagaiak, energia elektrikoa, erauzketa enpresak -meatzaritza-, baso-ustiapena, zerbitzu finantzarioak. Guztiek ezagutzen ditugu sektore hauetan jarduten duten enpresa transnazionalak eta seguruenik haietakoren baten bezero izango gara, hortaz gure esku ere ba-

dago ikusi dugun moduan herrien eskubideen urraketa larriak egiten dituzten enpresa hauei mesederik ez egitea. Zentzu honetan, burutu dezakegun salaketa eta presio politikoaz gain, gure kontsumo eredia alternatiba lokalen, solidarioen eta jasangarrien aldeko apustua egiten duten kontsumo ohiturak aukeratzeko tresna da; transnazional handi hauen kalterako. Aipa ditzagun, modu laburrean bada ere, sektoreka hauetako alternatiba batzuk:

- **Nekazaritzako elikagaiak:** Ohikoa izaten da elikagaien enpresa handiek monolaborantza intentsiborako lursail oso handiak ezartzea lehen oihana zegoen tokietan eta indigenak bizi ziren tokietan. Gure esku dago, beraz, tokiko elikagaien alde egitea, ahalik eta hurbilenekoak, garaiokak, ekologikoak, bidezko merkataritzakoak... Eta herriko merkatuetan kontsumitzearen alde egitea, nekazariekin kontsumo-harreman zuzena duten taldeak, denda txikiak, kontsumitzaile ekologikoen elkarteak...
- **Energia elektrikoa:** guztiok ezagutzen ditugu estatuko konpainia elektriko handiak eta han eta hemen burutzen dituzten gehiegikeriak. Nahiz eta oraindik bide luzea duten egiteke, azken uzteetan energiaren kontsumo arduratsuago baten aldeko aukerak eraikitzen joan dira kooperatiba desberdinak:
 - **GOIENER:** Subiranotasun energetikoa berreskuratu nahi duen energia berriztagarria sortzeko eta kontsumitzeko kooperatiba. www.goiener.com
 - **SOM ENERGIA:** Energia berriztagarrien kooperatiba. www.somenergia.coop
- **Zerbitzu finantzarioak:** bankaren gehiegikeria eta eragin negatiboak ere ezagunak dira, ez soilik herrialde indigenetan megaproiektuak edo armak egiten dituzten enpresak finantzatzen, baizik eta aurpegi anitzeko egungo krisiaren sorreran ere, horien artean, finantzarioa. Energiaren kasuan bezalaxe, ohiko bankaren aurrean alternatiba asko indarra hartzen ari dira:
 - **FIARE BANKA ETIKOA:** merkatu finantzarioaren barruan alternatibak sortzeko bokazioa duten pertsona eta erakundeen sarea. www.proyectofiare.com
 - **TRIODOS BANK:** banka etiko eta jasangarria. www.triodos.es
 - **COOP57:** bere baliabideak ekonomia sozialeko proiektuei maileguak ematera bideratzen dituen zerbitzuen kooperatiba. www.coop57.coop

Honetaz guztiaz haratago, uste dugu komenigarria dela birgogoratzea lehenik eta behin "sen oneko" ohitura batzuk hartu beharko genituzkeela, izan daitezkeenak: gure etxeetan energia kontsumoa murriztea, erregai fosilen kontsumoa eta haiekiko dependentzia murriztea esate baterako ibilgailu pribatua gutxiago erabiliz, berrerabiltzearen alde egitea, birziklatzea eta ahal den neurrian produktu berri bat eskuratu baino lehen norbaitekin trukatzeko saiatzea, eta abar.

ZURE VISION – SOCIAL VISION

SPOT SOZIALEN LEHIAKETA

Mugarik Gabek, beste urte batez, spot sozialen ``Zure visión – Social vision`` lehiaketa antolatu du.

Oraingoan lehiaketa honek, enpresa transnationalek hegoaldeko zein iparraldeko herrialdeetan egiten dituzten abusuzko praktikei heldu eta salatu nahi ditu, haien jardueraren ondorioak eta inpaktua eta horrek pertsonentzat eta herrientzat dakarren eskubide-urraketa. Zehazki, modu positiboan baloratuko da enpresa transnationalek herri eta lurralde indigenetan duten inpaktua islatzen dituzten spotak, baina ez da ezinbesteko betekizuna.

Lehiaketa honetarako ondorengo gaien tratamendua lehenetsiko dugu:

- Enpresa transnacionalak: Abusuzko praktikak eta haien jarduerak hegoaldeko edota iparraldeko herrialdeetan dituzten ondorioak. Kasu zehatzak jorratu daitezke.
- Enpresa transnacionalak eta gure kontsumo-ohiturak. Nola manipulatzten gaituzte? Nola jokatzten dute? Zer egin dezakegu enpresa horiei mesede ez egiteko?
- Enpresa transnacionalak, herrien eskubide indibidual eta kolektiboen urraketa –indigenak edo ez indigenak- eta komunitateetan, lurraldean eta ama lurrean duten inpaktua.
- Oposiziorako eta borrokarako alternatibak praktika hauen eta eskubide-urraketaren aurrean.
- Bereziki baloratuko da spotek ikuskera feminista izatea: nola eragiten dieten abusuzko praktika horiek eta eskubide-urraketek emakumeei (indigenak edo indigenak ez direnak) eta zein borroka ari den egiten horren aurrean.

Ardura sozialak dituzten pertsona eta kolektibo guztiak animatzen ditugu kamera edo sakelako telefonoa hartzera eta gai hauek islatzera. Hala, ikus-entzunezko hedabideei esker eraldaketa sozialean laguntzearren.

Hainbat sari egongo dira irabazleentzat.

Ardura, irudipena eta mundu aldatzeko gogo bizia baino ez da behar!

Oinarriak, aurretikoak eta lehiaketaren informazio guztia hemen:

www.mugarikgabe.org/herrieneskubideak

